

2022/ 2023 ikasturtea

**ANEMIARI AURRE EGITEKO OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMA EMAKUME
SAHARAR ERREFUXIATUENGAN**

Keboula Zenan Mohamed Brahim

Laburpena

Sarrera: Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, anemia mundu osoko osasun publikoko arazo larria da, bereziki haur txikiei eta haurdun dauden emakumeei eragiten diena, heriotza-arrisku handiagoa baitute, bai eta haurtzaroan ere. Munduko hamar arazo larrienetako bat anemia da eta mikronutrienteen urritasun edo gabeziaren forma ohikoena da. Lan honetan, saharar emakume errefuxiatuengan anemiari aurre egiteko osasun-hezkuntza programa aurkezten da.

Helburuak: Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan dagoen Smara kanpamentuko 15-49 urte bitarteko emakume sahararretan anemiari aurre egiteko Osasun-Hezkuntza Programa (OHEZP) bat diseinatzea.

Metodologia: osasun-hezkuntza programa hau gauzatzeko gaiaren inguruko informazioaren bilaketa bibliografikoa burutu da. Lortutako informazioa ebidentzia zientifikoa oinarrituta egoteko helburuarekin, datu-base elektronikoak, erakunde desberdinen web-orriak eta osasun-hezkuntza programak diseinatzeko manuala erabili dira.

Plangintza: programa honen helburu pedagogikoa saharar errefuxiatuen kanpamentuko 15-49 urte bitarteko emakumeek anemiari aurre egiteko ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak bereganatzea izanik, bost asteko iraupena duen proiektua diseinatu da. Plangintzan diana-taldearen ezaugarriak eta kaptazioa, helburu pedagogikoen formulazioa, jardueren programa eta saioen antolakuntza landu dira.

Ebaluazioa: osasun-hezkuntza programa amaitzean hasieratik finkatu diren helburuak bete direla ziurtatzeko, ebaluazio bat egingo da. Ebaluazioan programaren egitura eta prozedura eta lortutako emaitzak ebaluatuko dira.

Ekarpen pertsonala: anemia mundu mailan dagoen osasun arazoa da, eta saharar errefuxiatuen kanpamentuetan asko gailentzen da. Horregatik, hori prebenitzeko osasun-hezkuntza programa honetan emakume sahararrengan anemiarekiko kontzientzia landu nahi da. Programa honi esker, emakume sahararrek anemiari aurre egiteko estrategiak ezagutuko dituzte eta dituzten baliabideak kontuan hartuz horiek praktikan nola jarri irakatsiko zaie bizimodu osasuntsuagoa izan dezaten.

Hitz gakoak: anemia, emakumea, Ipar Afrika eta osasun-hezkuntza.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	HELBURUAK.....	9
3.	METODOLOGIA.....	10
4.	PLANGINTZA.....	13
4.1.	Helburu pedagogikoak.....	13
4.2.	Jarduereen programazioa.....	14
4.2.1.	Hezkuntza edukiak eta estrategia metodologikoak.....	14
4.2.2.	Kronograma eta baliabideak.....	24
4.3.	Ebaluazioaren plangintza.....	25
4.3.1.	Programaren prozesuaren ebaluazioa.....	25
4.3.2.	Programaren egituraren ebaluazioa.....	25
4.3.3.	Programaren emaitzen ebaluazioa.....	25
5.	EKARPEN PERTSONALA.....	27
6.	BIBLIOGRAFIA.....	29
7.	ERANSKINAK.....	33

TAULEN AURKIBIDEA

1.	Taula: Anemiaren datu estatistikoak Espainian eta Euskal Herrian.....	46
2.	Taula: Anemiaren prebalentzia mundu mailan 2000-2018 urteen artean.....	46
3.	Taula: DeCS eta MeSH eta Terminologia askea.....	47
4.	Taula: Datu-baseetan DeCS, MeSH eta hitz gakoaren konbinazioaz egindako bilaketaren-emaitzak.....	48

IRUDIEN AURKIBIDEA

1.	Irudia: Osasun determinatzaileak.....	50
2.	Irudia. Portaera-aldaketaren gurpila.....	51
3.	Irudia: Millerren piramidea.....	52

1. SARRERA

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, anemia mundu osoko osasun publikoko arazo larria da, bereziki haur txikiei eta haurdun dauden emakumeei eragiten diena, heriotza-arrisku handiagoa baitute, bai eta haurtzaroan ere. OMEren arabera, anemia gaitz bat da, non globulu gorrien kopurua edo horien barruan dagoen hemoglobina-kontzentrazioa normala baino txikiagoa den. Hemoglobina (Hb) beharrezkoa da oxigenoa garraiatzeko, eta pertsona batek oso globulu gorri gutxi baditu, horiek anomaloak badira edo hemoglobina nahikorik ez badago, horrek gutxitu egingo du odolak organismoaren ehunetara oxigenoa garraiatzeko duen gaitasuna (1). Helduetan anemia Hb <13 g/dl balioa da gizonezkoetan, eta 12 g/dl balioa haurdun ez dauden emakumezkoetan (2). Behar fisiologikoak asetzeko beharrezkoa den hemoglobina-kontzentrazio optimoa aldatu egiten da adinaren, sexuaren, tabakismoaren eta haurdunaldiaren arabera, besteak beste. Anemiaren kausa ohikoenak nutrizio-gabeziak dira; horregatik, anemia desnutrizioaren eta osasun txarraren adierazlea da, eta hainbat sintoma eragin ditzake, hala nola nekea, ahulezia, zorabioak eta logura. Berez, anemia, arazo bat da, baina munduan dauden beste nutrizio-arazo batzuetan ere eragina izan dezake, hala nola hazkundearen atzerapenean, argaltze patologikoan, pisu txikia jaiotzean eta gehiegizko pisua eta obesitatea haurtzaroan ariketa fisikoa egiteko energia faltagatik (1). Haurdun dauden emakumeak eta haurrak dira talde zaurgarrienak. Izan ere, anemiak areagotu egiten ditu erikortasuna eta amaren hilkortasuna, erditze ondoko odoljarria, eta fetuaren hazkuntza atzeratzeko faktore bat da (3). Gainera, haurren eskola-errendimendu eskasak eta anemiak eragindako helduen lan-produktibitatea murrizteak ondorio sozial eta ekonomiko gehiago ekar diezazkieke gizabanakoari eta familiari (1).

OMEren kalkuluen arabera, mundu osoan anemia jasaten dute 5 urtetik beherako haurren %42ak, haurdun ez dauden emakumeen %33ak eta haurdun daudenen %40ak (1,4). Gainera, munduan ugaltzeko adinean dauden hiru emakumetik bati anemiak eragiten dio, eta horrek ondorio nabarmenak ditu emakumeen eta haien seme-alaben osasunean eta garapenean (5). Horrek agerian uzten du anemiaren prebalentziak altua izaten jarraitzen duela mundu mailan. Gaineratu behar da batez ere diru-sarrera txikiko inguruneetan gertatzen dela hori, non haur txikien eta adin ugalkorrean dauden emakumeen proportzio handi bat ustez anemikoak diren (1). Eskualde bakar batek ere

ez du erakutsi ugalketa-adinean dauden emakumeen anemia murrizketarik, eta Afrikako eta Asiako prebalentzia Ipar Amerikakoa baino ia hiru aldiz handiagoa da (5).

Oro har, 2019an, 15 eta 49 urte bitarteko hiru emakumetik batek (571 milioi) anemia zuen, eta 2012tik ez da aurrerapenik izan. 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen artean anemiaren prebalentzia, 2000. urtean %31,2koa izan zela kalkulatu zen, eta horrek beheranzko joera txiki bat izan zuen 2012. urtera arte, baina 2019an %29,9ra igo zen berriro (18). Prebalentzia %29,9koa izan zen ugaltzeko adinean zeuden emakumeetan, %29,6koa ugaltzeko adinean zeuden emakume ez haurdunetan, eta %36,5ekoa emakume haurdunetan (19). Anemia duten emakumeen guztizko kopurua etengabe igo da 2000. urtean 493 milioi izatetik 2019. urtean 570,8 milioi izatera (18). Hala ere, 2000. urteaz geroztik, ugaltzeko adinean dauden emakumeen artean anemiaren prebalentzia globala mantendu egin da, eta haurdun dauden emakumeen artean anemiaren prebalentzia, aldiz, pixka bat jaitsi da (19).

Espanian, Munduko Bankuan argitaratutako datuen arabera, hogeitau urte hauetan etengabe gora egin du, eta horrek erakusten du diagnostikoa hobetu dela, baina ez dela lortu kasuen igoera kontrolatzea. Osasun publikoko arazoa da, eta arazo larria izatera igaro daiteke, hala ere, oraindik ez zaio behar besteko garrantzia ematen (20). Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokionez, anemiaren prebalentzia, eta batez ere anemia ferropenikoarena pixka bat baxuagoa da (ikusitu datu estatistikoak 1. taulan) (21).

2018an anemiaren prebalentzia handiagoa zen Afrika mendebaldeko, Ekialde Ertaineko eta Asia hegoaldeko herrialdeetan. Afrikan hainbat herrialde izanik anemia maila altuenak izan zituztenak 2000 eta 2018an. Urte berean, anemia prebalentziarik txikiena Ertain Amerikan, Karibeetan, Andeetako Hego Amerikan eta Asiako ekialdean izan zen (ikusitu datu estatistikoak 2. taulan) (22).

Azken hamarkadetan, Afrikako erdialdeak eta mendebaldeak eta Asiako hegoaldeak izan dituzte hemoglobina kontzentrazio txikiak eta anemia prebalentziarik altuenak, aldi berean, Afrikako ekialdean ere hemoglobina kontzentrazio txikiak egon dira haurretan (23).

Aljeriari eta Mauritaniari dagokienez, horiek sahararren ohitura eta kultura antzekoenak dituzten herrialdeak izanik; Munduko Bankuaren garapen-adierazleen bildumaren arabera, ofizialki aitortutako iturrietatik bilduta, ikus dezakegu 2019an anemiaren prebalentzia %33,30ekoa izan zela Aljerian adin ugalkorrean dauden emakumeen (15

eta 49 urte bitarteko emakumeak) artean eta, Mauritania, aldiz, haurdun ez dauden emakumeen (15-49 urteko emakumeen) artean anemiaren prebalentzia %42,8koa izan zen (24,25).

Laburbilduz, Afrikar kontinenteari dagokionez, Osasunaren Mundu Erakundeak dio kontinente honetan haurdun dauden emakumeen %57,1ek anemia duela (3).

Saharar errefuxiatuen kanpamentuei dagokienez, euskaraz Mendebaldeko Saharan Erreferenduma egiteko Nazio Batuen Misioko (MINURSO) 2019an argitaratutako biztanleriaren nutrizio-jarraipenaren arabera, soilik %12k dute elikagaiak eskuratzeko aukera, %58a zaurgarriak dira eta %30a elikadura-segurtasunik gabeko egoeran daude gaur egun. 2016 eta 2019 artean gora egin dute ehunekoek desnutrizio akutu globalean, hazkunderaren atzerapenean, anemia adingabeetan eta anemia haurdun dauden emakumeetan (26).

Kanpamentuetako bost wilayatan (arabierazko probintzia hitza) taldekako nutrizioari buruzko inkesta estratifikatu bat egin zen. Inkesta 2019ko martxotik maiatzera bitartean egin zen, biztanleriaren nutrizio-profilaren mapa zehatza ezartzeko helburu orokorrarekin. Inkestaren emaitzak errefuxiatu sahararren nutrizio-egoera eta osasuna hobetzeko gomendioak egiteko erabili ziren.

Inkestaren arabera, urteetan zehar nutrizio-adierazleek hobera egin duten arren, errefuxiatu sahararren nutrizio-egoera prekariora da oraindik.

Nutrizioari buruzko azken inkestak, 2016an egindakoak, erakutsi zuen ugalketa-adinean eta haurdun ez dauden emakumeen (15-49 urte) eta 6 hilabeteko eta 5 urteko haurren artean, anemiaren prebalentzia osasun publikorako batez besteko garrantziko atalasearen inguruan zegoela (%45,2 eta %38,7an, hurrenez hurren). Gainera, anemia-maila altuegiak erregistratu ziren haurdun zeuden emakumeen eta ugaltzeko adinean zeuden bularreko haurren artean (%59,8 eta %72,0an, hurrenez hurren). Bestalde, aurreko nutrizio-inkestek erakutsi dute korrelazio handia dagoela burdina-eskasiaren eta anemiaren prebalentziaren artean populazio horretan.

Ugalkortasun-adinean dauden emakumeen (15-49 urte) nutrizio-egoerari dagokionez, aipatutako azterlanak anemia-adierazleak adierazten ditu: ugalketa-adinean zeuden eta haurdun ez zeuden emakumeen anemiaren prebalentzia %52,2 izan zen,

Aaiunen %47,9koa izanik eta Smaran %55,6koa. Haurdun zeuden emakumeek anemiaren prebalentzia-emaiza antzekoak izan zituzten (%55,1), baina, bularra ematen zuten emakumeek, alegia, anemiaren prebalentzia handiagoa izan zuten (%69,1) (12).

Munduko hamar arazo larrienetako bat anemia da eta mikronutrienteen urritasun edo gabeziaren forma ohikoena da (3). Mikronutrienteak gorputzak behar dituen bitaminak eta mineralak dira. Hala ere, gorputz baten osasunean duten eragina kritikoa da, eta horietako baten gabeziak baldintza larriak eragin ditzake, baita bizia arriskuan jarri ere. Funtzio ugari betetzen dituzte, gorputzak entzimak, hormonak eta hazkunde eta garapen normalerako beharrezkoak diren beste substantzia batzuk sortzea, besteak beste (6). Burdina, folato eta B12 eta A bitamina faltak anemia eragin dezake (7).

Kontuan izan behar da anemia mota desberdinak daudela: B12 bitaminaren urritasunagatiko anemia, folatoaren (azido folikoa) urritasunagatiko anemia, burdinaren urritasunagatiko anemia, gaixotasun kronikoagatiko anemia, anemia hemolitikoa, anemia aplasiko idiopatikoa, anemia megaloblastikoa, anemia perniziosoa, anemia faltziformea eta talasemia. Burdin eskasiaren ondoriozko anemia, anemia mota ohikoena da, gorputzak burdin nahikoa ez duenean gertatzen da, eta, beraz, gorputzak ez du globulu gorri osasuntsu nahikorik, burdinak globulu gorriak sortzen laguntzen baitu (8,9). Emakumeak eta neskek bereziki zaurgarriak dira anemiaren aurrean, dietan burdina gutxiegi dutelako, hilekoan odola galtzen dutelako eta hazkunde azkarra dutelako (10).

Laburbilduz, burdinaren defizita eta anemia ferropenikoa asko gailentzen dira emakumearen bizitzan zehar. Emakume batzuk bereziki zaurgarriak dira, besteak beste, hilekoaren odoljario handia dutenak, bai eta haurdunaldian eta puerperioan ere. Emakumeen artean burdin defizitaren eta anemia ferropenikoaren prebalentzia handia bada ere, egoera hori oraindik gutxietsita eta infradiagnostikatuta dago, eta horrek ondorio kliniko larriak dakartza (11).

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan, osasun publikorako garrantzi handiena duten nutrizio-arazoak dira emakumeen anemia eta haurretan (6 hilabete eta 5 urte bitartekoak) anemia eta hazkundearen atzerapena (12).

Horregatik, OHEZP honetan, datu orokorrak aztertzeaz gain, Ipar Afrikako eta bereziki Aljeriako saharar errefuxiatuen kanpamentuetako datuak ere landu dira.

Afrikaren kasuan, gatazka armatuek, ezegonkortasun politikoek, gobernu txarreko egoerek eta elikadura-krisi errepikakorrek, ondorio larriak izan dituzte azpi kontinenteko hainbat herrialdetako gaixotasunen hilkortasunean eta hedapenean, osasun-zerbitzuen eskaintza narriatzearen eta horien zerbitzuen eskariarekiko desoreka areagotzearen ondorioz (13).

Euskaraz Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi Mandatariak (ACNUR) egindako txosten baten arabera, 2021aren amaieran, jazarpenaren, gatazkaren, indarkeriaren, giza eskubideen urraketan edo ordena publikoa larriki aldatu zuten gertakarien ondorioz, mundu osoko 89,3 milioi pertsona baino gehiagok beren etxeetatik ihes egin behar izan dute. Horien artean 27,1 milioi errefuxiatu daude (14). Saharar errefuxiatuen kanpamentuei dagokienez, ACAPSen arabera, 173.000 errefuxiatu saharar baino gehiago Tindufeko probintzian bizi dira, Aljerian; zehazki, 1975etik Aljeriako basamortuan bizi dira, hau da, duela 47 urtetik, Espainiak Mendebaldeko Saharatik alde egin zuenetik, Marokoren menpe utziz, zeinak gaur egun legez kanpo okupatzen jarraitzen duen (15,16). Gaur egun, saharar errefuxiatuen kanpamentuak 5 wilayah osatzen dute: Auserd, Smara, Dajla, El Aaiun eta Bojador (17). Errefuxiatu sahararrak elikadurarako laguntzaren menpe daude, basamortuko ingurune gogor eta pobreak. Hori dela eta errefuxiatu sahararrek hainbat erronka dituzte elikagaiekin, nutrizioarekin eta osasun-egoerarekin lotuta (16).

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetako elikadura oinarritzko saskiaren hileroko banaketan araberakoa da, zeina azken hilabeteetan produktu barietatean eta kantitatean modu kezagarrian murriztu den. 2021eko irailean, banaketak honako hauek izan ziren: kilo bat barazki (patata, azenarioa edo tipula), 2 kg irin, 2 kg garagar, 2 kg dilista, 0,75 kg azukre eta 0,92 L landare-olio, eta saskitik kanpo geratu dira normalean banatzen ziren produktuak, hala nola arrosa, gofioa edo pasta. Pertsona zaugarrien ehunekoa biztanleria osoaren %91 izatera iritsi den arren, azpimarratu beharra dago oinarritzko saskia biztanleriaren %75era baino ez dela iristen (27). Zoritxarrez, kanpamentuetako elikaduraren ezaugarri nagusiak dira energia eskasia izatea bai eta zuntz-kontsumo txikia, gantz-azido monoinsaturatuen urritasuna eta mikronutriente gehienaren gabezia (28).

Euskaraz Munduko Medikuek (MmM) erakundeak ohartarazi zuen saharar errefuxiatuek duten elikadura- eta osasun-krisiaren ondorioak agerian daudela, nazioarteko laguntzak %20 egin baitzuen behera 2022ko azken sei hilabeteetan (29).

Munduan anemiari aurre egiteko estrategia nagusiak dira dieta hobetzea nutrizio osoagoaren bidez edo burdinazko gehigarriak erabiliz, infekzioak gutxitzea eta hobeto tratatzea. Horretarako, garrantzitsua da prebentzioa, anemiak munduko osasunean dakartzan arriskuei buruzko ezagutza hobetzeko, eta horri modu aktiboagoan eta eraginkorragoan aurre egiteko beharraz kontzientziazteko (30).

Anemia prebenitzeko edo honi aurre egiteko jarraitu beharreko dietari dagokionez, jakin behar da anemia mota ohikoenak prebenitu eta tratatu daitezkeela burdina eta B bitamina ugari elikagaiak eta C bitaminan aberatsak diren fruta eta barazkiak kontsumituz, azken hauek gorputzak burdina xurgatzen laguntzen dutenak dira. Burdin iturri onenak haragi gorriak (batez ere, abelburua eta gibela), hegazti-haragia, arraina eta itsaskiak dira. Gainera, burdina ugari duten beste elikagai batzuk dira ilarrak, dilistak, babarrunak, tofua, espinaka bezalako hosto berdedun barazkiak, aranak eta mahaspasak bezalako fruta lehorrak, eta burdinaz gotortutako zerealak eta ogiak (31).

Kontuan izan behar da aipatutako elikadura mota eta estrategiak ezartzea zaila dela, herrialde batzuetan oso errotuta dauden ohitura eta lehentasun dietetikoengatik, eta, horrez gain, burdinaz aberatsak diren elikagaiak eskuratzeko baliabide gutxi eta zailtasun asko daudelako (30).

Horregatik, erizainek, osasun agente gisa, zeregin garrantzitsua dute gaixotasun honen prebentziari edo aurre egiteari eta honen inguruko hezkuntzari dagokionez. Azken ikerketen arabera, anemia prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako hezkuntza-esku-hartzeak bide eraginkorra izan daitezke arazoa kontrolatzeko; izan ere, osasunaren sustapenaren helburua ezagutzak zabaltzea eta horiek murrizteko planak abian jartzeaz gain, osasun determinatzaile (ikus 1. irudia) aldagarriak jorratzea da, ez bakarrik gizabanakoen ekintzekin lotutakoak, hala nola, portaera eta bizimodu osasungarriak, baita gizarte-baldintzatzaileekin lotutakoak ere, hala nola, posizio soziala, lana, lan-baldintzak, diru-sarrerak, hezkuntza eta osasun-zerbitzu egokiak eta ingurune osasungarriak eskuratzeko; horiek guztiek, konbinatuta, osasunean eragin argia duten bizi-baldintzak sortzen dituzte. Beraz, osasun-hezkuntza bat biztanleriari zuzendutako irakaskuntza bat da, osasuna hobetzen laguntzen duten ezagutza, trebetasun eta jokabideekin erlazionatua. Hori dela eta, erizaintzako profesionalen esku-hartzeen

kasuan, helburua biztanleria orokorrak dagoeneko dituen ezagutzak areagotzea da, familia-taldeei eta pertsoneri beren bizimoduan aldaketak egiten lagunduz, informatuz eta trebetasunak eta gaitasunak eskuratuz, nor bere burua zaintzea eta ohitura osasungarriak ezartzea sustatzeko. Ildo horretan, amei eta familiei nutrizioaren rolari buruzko prestakuntza ematea funtsezkoa da, eta prebentzio gisa bizi-zikloaren lehen urteetan ematea gomendatzen da; gero, anemia ferropenikoa diagnostikatzen bada, sendatzeko farmakologiara jo beharko baita, besteak beste. Zehazki, anemia ferropenikoari aurre egiteko, nutrizio-hezkuntzako programak aproposak dira arrisurfaktoreak murrizteko bai eta desagerrarazteko. Azkenik, erizaintzako profesionalen esku-hartzeak esan nahi du ikuspegi pedagogiko bat hartu behar dela, topaketa-, prestakuntza- eta laguntza-prozesuak sortzeko aukera emango duena, behar bezalako euskarri didaktikoa duten hezkuntza saioak eginez (ikus-entzunezko materialak, informazio-materialak eta abar erabiliz), bai eta parte-hartzaileei jaso duten informazioa aplikatzeko aukera emango dieten erakusketa-jarduerak ere (tailerrak, erakustaldiak, eta abar) (32, 33).

Aldez aurretik landutako datuak kontuan hartuta ikusten da saharar errefuxiatuen kanpamentuetako emakumeetan anemiaren prebalentzia oso altua dela, horregatik, anemiaren auzia lantzea garrantzitsua dela ondorioztatzen da. Hori dela eta, OHEZP hau emakume errefuxiatu sahararrei bideratua dago. Hain zuzen ere, Smara kanpamentuan eramango da aurrera; kanpamentu hori 50.700 pertsonen osatzen dute (saharar errefuxiatuen kanpamentuaren %29a, alegia). Pertsona horietatik 25.300 emakumeak dira, eta horietatik 10.900 18-49 urte arteko emakumeak dira (34). Horregatik, proiektu hau 15-49 urte bitarteko emakumeei bideratua dago. Agerian da adin desberdintasuna, hala ere, errefuxiatuen kanpamentuetan emakume talde horrek antzeko pentsaera azaltzen du, neskek oso gaztetatik imitatzen dituztelako emakume helduen jarrerak bai eta haien rolak burutu; adibidez, gazte ezkontzeko ohitura dago eta hori estuki lotuta joaten da familia bat osatzearekin batera, ondorioz, gazte izaten dituzte seme-alabak. Horregatik, kontsideratzen da ez dagoela arazorik adin tarte horretan dauden emakumeek elkarrekin osasun-hezkuntza programa honetan parte hartzeko.

Diana-taldea zehaztu ondoren, garrantzitsua da aurkeztuko zaien gaiaren inguruan taldeak dituen ezagutzak, kezkek, jarrerak, gaitasunak eta itxaropenak identifikatzea. Hori egiteko, aurrerago landuko den Planifikazioa atalean, jarduera desberdinak burutuko dira; horien bidez ere lanean proposatu diren helburuak erdiesteko. Landuko diren saioetan hiru osasun-agente egongo dira, 2 erizain (bat lokala

eta bestea kanpotik datorrena) eta eduki batzuk nutrizionista baten eskutik jorratuko dira. Adierazi bezala, programa Smara kanpamentuan eramango da aurrera, eta parte-hartu nahi duten emakumeentzako irisgarria izan dadin, Smarako areto nagusian gauzatuko da, kanpamentuaren erdialdean kokatzen delako. Horretarako, eskaera egingo da (ikus 1. eranskina).

Azkenik, harremanetan jarri da gaztelaniaz Unión Nacional de Mujeres Saharaui (U.N.M.S) eta euskaraz Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren erakundearekin, eta beraien bidez egingo da taldearen kaptazioa, hau, kanpamentuetako emakumeak batzen dituen sarea delako. Horretarako, emakume sahararren artean eskuorriak eta izena emateko orriak banatuko dira programa honetara gonbidatuz (ikus 2. eta 3. eranskinak). Aurkezten diren guztietatik UNMSekoak arduratuko dira 20 emakume hautatzeaz (aretoke gehieneko edukiera hartu da kontuan), eta gero horiei baimen informatuaren dokumentua iritsarazteaz (ikus 4. eranskina).

2. HELBURUAK

a. Nagusia

Helburu nagusia saharar errefuxiatuen kanpamentuetan dagoen Smara kanpamentuko 15-49 urte bitarteko emakume sahararrentzat anemiari aurre egiteko Osasun-Hezkuntza Programa (OHEZP) bat diseinatzea da.

b. Zehatzak

- Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan anemiarekin loturiko lehentasuna justifikatzea.
- Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan anemiarekin loturiko arrisku-faktoreak identifikatzea.
- Osasun-Hezkuntza Programa aurrera eramateko diana-taldea zehaztea.
- Osasun-Hezkuntza Programa aurrera eramateko edukiak, estrategia metodologikoak eta baliabideak deskribatzea.
- Osasun-hezkuntzarako ebaluazioa diseinatzea.

3. METODOLOGIA

3.1. Datu bilketa

Bilaketa bibliografikoa egin da 2022ko azaroa eta 2023ko martxo bitartean, gaiaren inguruko informazioa eskuratzeko. Nahiz eta informazio gehiena literatura desberdinetan bilatu; datu-baseetan ere egin dira bilaketak.

Datu-baseetako bilaketa zehatza izateko, deskriptoreak “Descriptores en Ciencias de la Salud” (DeCS) eta “Medical Subject Heading” (MeSH); eta, terminologia askeko terminoak bilatu dira (ikus 3. taula).

Deskriptoreak eta terminologia askea zehaztutakoan, bilaketak burutu dira datu-base hauetan: PubMed eta Dialnet (ikus 4. taula).

Datu-baseetan bilaketak egiterakoan zenbait iragazki aplikatu dira: azken 5-10 urteetako artikuluak izatea, hala ere, “lehenagoko” artikuluak ere baliatu dira egokiak izan direlako lanketarako; gaztelaniaz eta ingelesezko artikuluak izatea eta testu osoko aukera edukitzea.

Artikuluen aukeraketa egiteko, zenbait barneratze- eta baztertze-irizpide aplikatu dira. Horrela, lanaren helburuetara egokitzen diren artikuluak eskuratu dira.

- Barneratze-irizpideak: artikuluak anemiarekin zerikusia izatea gehienbat Afrika Eskualdean. Kontuan hartu dira anemia landu dituzten beste osasun-hezkuntza programak. Aukeraketa egiteko, aurkitu diren artikuluen izenburua eta laburpena irakurri dira, eta interesekoak izan direnak hautatu dira.
- Baztertze-irizpideak: lan honetan planteatzen diren helburuak lantzen ez dituzten artikuluak baztertu dira, hau da, anemia emakumeetan lantzen ez dituzten artikuluak; anemia ez den beste gaixotasunetan eta emakumeak ez diren beste talde batean zentratzen direnak, alegia.

Datu-baseetan bilaketak egiteaz gain (hauetan ez dut nire lanerako interesezkoa izan den bibliografia askorik aurkitu), erakunde ofizialen web orriak, adibidez Osasunaren Munduko Erakundearen web orria eta *Métodos educativos en salud* manuala baliatu dira, besteak beste. Gainera, errefuxiatuen kanpamentuetako emakumeen egoera eguneratua ezagutzeko bai eta beharrezko baliabideen eta diana-taldearen inguruko

informazio zehatza eskuratzeko, kanpamentuetako pertsona desberdinekin hitz egin da, hala nola, herritarrekin eta osasun profesionalekin.

3.2. OHEZP aurrera eramateko jarraitu beharreko pausoak

Osasun-hezkuntza hau aurrera eramateko zenbait pauso jarraitu behar dira.

Lehendabizi, Euskadiko Saharar Delegazioarekin koordinatu beharko da baimen baten bitartez (ikus 5. eranskina) errefuxiatuen kanpamentuetan aurrera eramanez nahi den proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Horrela, Delegazioa errefuxiatuen kanpamentuetako arduradunekin harremanetan jarri beharko da egoeraren berri emateko. Gero, Delegazio berdinak, errefuxiatuen kanpamentuetara bidaiatuko duen lan taldearen bidaia tramitatuko du, era berean, Polisarioren Madrilgo Ordezkaritzari bidaiariaren bisak tramitzatzeko eskaera egingo dio. Gainera, Euskadiko Delegazioak, Aljerren dagoen enbaxada sahararri bidaiatuko duen lan taldeak Bordenetik (beste hainbat proiektuk hortik hegaldia hartu dutelako) Aljerreraino hegaldia hartuko duela jakinaraziko dio; horrela, enbaxadak bidaiariei Aljerretik Tinduferrainoko lekualdaketa lagun diezaien, handik, gero, saharar errefuxiatuen kanpamentuetara joan ahal izateko. Azkenik, Euskadiko Delegazioa, errefuxiatuen kanpamentuetan dagoen Saharar Protokoloa deituriko instituzioarekin ere jarri beharko da harremanetan eta bidaiariaren iritsiera Tinduferra noiz izango den komunikatuko die; instituzio hori atzeritik datozen bidaiariaren egonaldiaz arduratzen da; beraz, Protokoloa arduratuko da lan taldea Tindufetik jasotzeaz eta errefuxiatuen kanpamentuetara lekualdatzeaz, bai eta lan taldearen harreraz, egonaldiaz, beharrezko lekuetara joateko garraioa jartzeaz eta errefuxiatuen kanpamentuetatik Tinduferrako itzuleraz, non lan taldeak hegaldia hartuko duen Aljerreraino, gero, Aljerretik Bordelerraino eta, azkenik, Euskal Herriraino.

Saioak aurrera eramateko, burdinar aberatsak diren elikagaiak lortzeko janari bilketa ere egingo da bidaia burutu baino lehenago instituzio publiko desberdinetan: ikastetxeetan, udaletxeetan, herriko txoko desberdinetan... Elikagai horiek guztiak, Sahararen aldeko Euskal Karabanaren bidez bidaliko dira kanpamentuetara, eta, han, UNMS elkarteak arduratuko da horiek biltzeaz eta gordetzeaz osasun agenteak kanpamentuetan saioekin hasten diren arte.

Behin lan taldea saharar errefuxiatuen kanpamentuetan dagoela, arestian aipatu bezala, lanaren saio desberdinak Smarako areto nagusian eramango dira aurrera. Aretoa

hornitzeaz UNMS taldea arduratuko da, bai eta adierazi den bezala, kaptazioa burutzeaz, beraien laguntza garrantzitsua izango delako emakumeen parte-hartzea lortzeko. Hala ere, nahiz eta osasun-hezkuntza hau euskaraz dagoen eginda, kanpamentuetan aurrera eramango den proiektua hasian burutuko da, saharar errefuxiatuen kanpamentuetan hitz egiten den arabieraren dialektoan, alegia. Programa bi modutara emango da, alde batetik, ahoz eta bestalde, idatziz. Hala ere, momentu oro egoera baloratzen joango da eta aretoan dauden emakumeen beharretara egokituko dira saioak, aurretik emakume bakoitzaren alfabetatze-maila ezagutuz. Gogoan izango da lortu nahi dena: ahalik eta emakume gehienek parte-hartzea. Horrela, proiektuaren bidez, errefuxiatuen kanpamentuetako emakumeen anemiaren auzia landuko da eta egoera ebaluatu ahalko da, etorkizunari begira martxan jarri beharko diren estrategiak egituratzen joan ahal izateko.

4. PLANGINTZA

4.1. Helburu pedagogikoak

Helburu nagusia: Saharar errefuxiatuen kanpamentuko 15-49 urte bitarteko emakumeek anemiari aurre egiteko ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak bereganatzea.

Helburu zehatzak:

1. Anemia zer den identifikatzeko, definitzeko eta azaltzeko gai izango dira 1. saioaren amaierarako.
2. Talde zaurgarriak identifikatzeko gai izango dira 1. saioaren amaierarako.
3. Norberak anemiaren inguruan duen ikuspuntua eta esperientzia partekatuko du 1. saioaren amaierarako.
4. Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan dagoen intzidentzia azaltzeko eta horren arrazoiak identifikatzeko gai izango dira 2. saioaren amaierarako.
5. Anemiaren eragileak eta arrisku-faktoreak identifikatzeko eta azaltzeko gai izango dira 3. saioaren amaierarako.
6. Ez zaintzearen ondorioak zein diren azaltzeko gai izango dira 3. saioaren amaierarako.
7. Osasun agenteek duten garrantzia identifikatzeko gai izango dira 4. saioaren amaierarako.
8. Anemia prebenitzeko edo honi aurre egiteko jarraitu beharreko dietari buruzko ezagutzak bereganatuko dituzte 4. saioaren amaierarako.
9. Anemia prebenitzeko edo honi aurre egiteko jarraitu beharreko dietari loturiko menua diseinatuko dute 5. saioaren amaierarako.
10. Programan bereganatutako ezagutzak ebaluatuko dituzte 6. saioaren amaierarako.
11. Anemia prebenitzeko edo honi aurre egiteko jarraitu beharreko dieta praktikara eramango dute OHEZP amaierarako.
12. Programan bereganatutako ohitura osasungarrien jarraipena adierazteko gai izango dira OHEZP amaierarako.
13. Programan bereganatutako ezagutzak jarrerak eta gaitasunak egunerokotasunean txertatuko dituzte 1 urtez.

4.2. Jardueren programazioa

4.2.1. Hezkuntza edukiak eta estrategia metodologikoak

Programa honek bost asteko iraupena izango du. Guztira sei saio emango dira, aste bakoitzean bat, azken astean izan ezik, bertan bi saio emango baitira. Jarraian, saioetan landuko diren gaiak aurkeztuko dira eta zehaztu diren helburu pedagogikoekin uztartuko dira. Era berean, saio bakoitzean erabiliko den metodologia eta haren iraupena zehaztuko dira taulen bitartez.

1. SAIOA

1. GAIA: Anemiaren testuingurua

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, anemia mundu osoko osasun publikoko arazo larria da, bereziki haur txikiei eta haurdun dauden emakumeei eragiten diena, heriotza-arrisku handiagoa baitute, bai eta haurtzaroan ere (1). OMEren kalkuluen arabera, mundu osoan anemia jasaten dute 5 urtetik beherako haurren %42ak, haurdun ez dauden emakumeen %33ak eta haurdun daudenen %40ak (1,4). Gainera, munduan ugaltzeko adinean dauden hiru emakumetik bati anemiak eragiten dio, eta horrek ondorio nabarmenak ditu emakumeen eta haien seme-alaben osasunean eta garapenean (5). Emakumeak eta neskak bereziki zaugarriak dira anemiaren aurrean, dietan burdina gutxiegi dutelako, hilekoan odola galtzen dutelako eta hazkunde azkarra dutelako (10).

- 1., 2. eta 3. helburu zehatzak landuko dira.

1. Taula: 1. Saioaren antolaketa. **Iturria:** eginkizun propioa

	Edukiak	Metodologia	Jardueraren azalpena	Iraupena
	Harrera	<u>Elkartze Teknika</u>	Osasun agenteek eta parte hartzaileek beraien burua aurkeztuko dute. OHEZPen landuko diren atalak azalduko zaizkie eta saioen laburpena egingo zaie. 1. saio honetan landuko dena azalduko zaie.	20 minutu
		<u>Ikerketa Teknika:</u> Galdetegia	Parte-hartzaileei saioarekin hasi aurretik, anemiaren inguruko galdetegi bat luzatuko zaie (ikus 6. eranskina). Hau banaka, idatziz eta era anonimoan beteko dute.	15 minutu
1. Saioa	ATSEDENA			15 minutu
	Anemiaren testuingurua	<u>Ikerketa Teknika:</u> Idea zaparrada	Parte-hartzaileei gaiaren inguruan burura datorrena denekin partekatzeko eskatuko zaie. Ideiak arbelean jaso eta azken saiora arte gordeko dira, parte-hartzaileen eboluzioa aztertzeko.	10 minutu
		<u>Esposizio Teknika:</u> Parte hartutako lezioa	Parte-hartzaileen ideietatik abiatuta eta PowerPointaren laguntzaz anemiaren inguruko azalpen teorikoak landuko dira: definizioa, talde zaugarriak, datu estatistikoak...	50 minutu

2. SAIOA

2. GAIA: Kontzientziazio bidean: Anemia saharar errefuxiatuen kanpamentuetan

Saharar errefuxiatuen kanpamentuei dagokienez, MINURSOk 2019an argitaratutako biztanleriaren nutrizio-jarraipenaren arabera, 2016 eta 2019 artean gora egin dute ehunekoek anemia adingabeetan eta anemia haurdun dauden emakumeetan (26). Nutrizioari buruzko azken inkestak erakutsi zuen ugalketa-adinean eta haurdun ez dauden emakumeen (15-49 urte) eta 6 hilabeteko eta 5 urte arteko haurren artean, anemiaren prebalentzia osasun publikorako batez besteko garrantzizko atalasearen inguruan zegoela. Gainera, anemia-maila altuegiak erregistratu ziren haurdun zeuden emakumeen eta ugaltzeko adinean zeuden bularreko haurren artean. Bestalde, egindako nutrizio-inkestek erakutsi dute korrelazio handia dagoela burdina-eskasiaren eta anemiaren prebalentziaren artean populazio horretan (12). Errefuxiatu sahararrak elikadurarako laguntzaren menpe daude, basamortuko ingurune gogor eta pobrean, hori dela eta, hainbat erronka dituzte elikagaiekin, nutrizioarekin eta osasun-egoerarekin lotuta (16).

- 4. helburu zehatza landuko da.

2. Taula: 2. Saioaren antolaketa. **Iturria:** eginkizun propioa

	Edukiak	Metodologia	Jardueraren azalpena		Iraupena
2. Saioa	Harrera	<u>Elkartze Teknika</u>	Orain arte emandakoaren inguruan zalantzarik balego, horiek argituko lirateke. Jarraian, saio honetan emango dena azalduko da eta landuko diren helburuak azalduko dira.		15 minutu
	Kontzientziazio bidean: Anemia saharar errefuxiatuen kanpamentuetan	<u>Esposizio Teknika:</u> Azalpena eztabaidarekin	PowerPointaren laguntzaz, saharar errefuxiatuen kanpamentuetan dagoen anemiaren intzidentzia altua landuko da. Zalantzarik balego horiek erantzuteko denbora emango da.		45 minutu
		<u>Hausnarketarako teknika:</u> Eztabaida bidez	Parte-hartzaileei denbora emango zaie gaiaren inguruan eragina duten faktore eta arrazoen inguruan hausnartzeko. Burrutzen zaiena taldean partekatzeko eskatuko zaie, aurrerago landuko diren gaietara iristean konparaketa bat egiteko beraiek uste dutenaren eta errealitatearen artean.		15 minutu

3. SAIOA

3. GAIA: Anemiaren eragileak eta arrisku-faktoreak

Munduko hamar arazo larrienetako bat anemia da eta mikronutrienteen urritasun edo gabeziaren forma ohikoena da; horregatik, anemia desnutrizioaren eta osasun txarraren adierazlea da (1,3). Adibidez: burdina, folato eta B12 eta A bitamina faltak anemia eragin dezake (7). Horien artean, burdin eskasiaren ondoriozkoa mota ohikoena da (8,9).

- 5. helburu zehatza landuko da.

4. GAIA: Anemiaren ondorioak

Anemiak, hainbat sintoma eragin ditzake, hala nola nekea, ahulezia, zorabioak eta logura. Bestalde, munduan dauden beste nutrizio-arazo batzuetan ere eragina izan dezake, hala nola, hazkundearen atzerapenean, argaltze patologikoan, pisu txikia jaiotzean eta gehiegizko pisua eta obesitatea haurtzaroan ariketa fisikoa egiteko energia faltagatik (1). Gainera, areagotu egiten ditu erikortasuna eta amaren hilkortasuna, erditze ondoko odoljariora, eta fetuaren hazkuntza atzeratzeko faktore bat da (3). Eta, anemiak haurren eskola-errendimendu eskasa eragiten du, bai eta helduen lan-produktibitatea murriztu, honek ondorio sozial eta ekonomiko gehiago ekar diezazkiekeelarik gizabanakoari eta familiari (1).

- 6. helburu zehatza landuko da.

3. Taula: 3. Saioaren antolaketa. **Iturria:** eginkizun propioa

	Edukiak	Metodologia	Jardueraren azalpena	Iraupena	
3. Saioa	Harrera	<u>Elkartze teknika</u>	Orain arte emandako edukien inguruan zalantzak argitzeko denbora emango da.	15 minutu	
	Anemiaren eragileak eta arrisku-faktoreak	<u>Ikerketa teknika:</u> Ideia zaparrada	Parte-hartzaileei gaiaren inguruan burura datorkiena taldearekin partekatze eskatuko zaie. Ideia horiek arbelean jasoko dira.	10 minutu	
		<u>Esposizio Teknika:</u> Parte hartutako lezioa	Parte-hartzaileen ideietatik abiatuta eta PowerPointaren laguntzaz anemiaren eragileen eta arrisku-faktoreen inguruko azalpen teorikoak emango dira.	40 minutu	
	ATSEDENA				15 minutu
	Harrera	<u>Elkartze teknika</u>	Atsedenen aurretik landutakoaren laburpena egingo da, saioarekin jarraitu aurretik.	10 minutu	
	Anemiaren ondorioak	<u>Esposizio teknika:</u> Azalpena eztabaidarekin	Erizainak PowerPointaren bidez, anemiaren ondorioak azalduko ditu. Zalantzarik balego horiek erantzuteko denbora emango da.	30 minutu	

4. SAIOA

5. GAIA: Osasun agenteen garrantzia

Erizainek, osasun agente gisa, zeregin garrantzitsua dute gaixotasun honen prebentzioari edo aurre egiteari eta honen inguruko hezkuntzari dagokionez. Osasun-hezkuntza bat biztanleriari zuzendutako irakaskuntza bat da, osasuna hobetzen laguntzen duten ezagutza, trebetasun eta jokabideekin erlazionatua. Hori dela eta, erizaintzako profesionalek egindako esku-hartzeen kasuan, esku-hartze horien helburua biztanleria orokorrak dagoeneko dituen ezagutzak areagotzea da, familia-taldeei eta pertsoneri beren bizimoduan aldaketak egiten lagunduz, informatuz eta trebetasunak eta gaitasunak eskuratuz, nork bere burua zaintzea eta ohitura osasungarriak ezartzea sustatzeko (32,33).

- 7. helburu zehatza landuko da.

6. GAIA: Elikadura osasuntsua

